

dantbolin

2024 maiatza

280 ¨k.



Izar Unanue:
"Ez dezagun
argaltasuna
osasunarekin lotu
eta gizentasuna
osasun faltarekin
soilik"



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

txoko
taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelenehetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



APIRILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					


MAIATZA

MAIATZA						
1	2	3	4	5		
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA

EKAINA						
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

■ Egun ospatu izakia ■ Muga horietako 77-0000 ■ Irakatsi 18-0000000000000000 ■ Irakatsi



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



IRAETA JATETXEA

Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kulixi eta
pentsuak



www.laiakdenda.com
tfnor: 943148134

laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Aranburu

Landetxea
eta
jaketxea
943 148 005



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna

943 052 761



ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA

665 49 07 73

KOIOOTE

foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Araneta
ERRETEGIA

626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

KAIXO, ZESTOAR GUZTIOI:

Ohiana Calparsoro naiz, Danbolinen webgunearen arduradun berria eta talde honekin bat egiten azkenena. Erredakzioan zazpi hilabete pasa ondoren, esaerak dioten bezala "dakidan bakarra ezer ez dakidala da" eta erronkatzat daukat egunez egun nire zereginak hobeto egin eta Zestoa bere osotasunean ezagutzen joatea.

Hori dela eta ilusio handiarekin, asko gustatu zaidan erreportaje bat aurkeztu nahi dizuet, Fernando Arzallusek eta Jone Bergarak idatzia. Haien gure herriko elkarte gastronomikoetan barrena bidaiatzera garamatzate, haien historia eta gure bizitza sozial eta kulturean jokatzeko duten papera azalduz. Gure gizartean, jatea behar bat baino askoz gehiago da: sozializatzeko, uneak partekatzeko eta gure nortasuna ospatzeko modua da. Elkarte gastronomikoak horren isla dira, lagunak eraikitzeko eta taldeak indartzeko lekuak. Bazkari onak eta lagun artean biltzea maite dudanez, herri honen historiaren parte diren gune horiek gehiago ezagutzeko asko gustatu zait.

Otorduak eta talde harremanak ondo zaintzen saiatzen garela argi dago beraz, baina norberarekiko harremana? Amañur Aristik elkarrizketa egin dio Izar Unanueri honen inguruan. *Plus size* modeloak, bere proiektu berriak eta bere esperientzia pertsonalez hitz egiten digu. Emakume lodi gisa, bere bi-zi-zenekin eta ahalduntze eta onarpen hitzekin oso konektatuta sentitzen naiz. Paradoxikoki, janaria eta horren inguruko sozializazioa ospatzen dugun gizarte batean bizi gara, baina, aldi berean, zaila da neurri handiko pertsona izatea. Izarrek desafio egiten die estereotipo horiei, eta modan gorpuzten inklusioa eta aniztasuna sustatzen ditu, gu garen bezala onartu eta maitatzearen garrantzia gogoraraziz.

Azkenik, atsegin handiz iragarri nahi dizuet koinatzen ari garen hurrengo ekitaldia: Danbolinek ekainaren 22an antolatuko duen bigarren eskuko azoka. Jaieguna hau aukera bikaina izango da guztiok elkartzeko, gozatzeko eta arrazoi garrantzitsu bat babesteko. Helburua gure aldizkarirako webgune berria sortzeko dirua biltzea da, izan ere, tamalez, oraingoak eguneratzea beharrezkoa du. Ziur nago zuen laguntzarekin plataforma are hobea eta indartsuagoa eraiki ahal izango dugula. Espero dut, zenbaki honek aho zapora goxoa utziko dizuela eta bigarren eskuko azokan elkar ikusiko dugula. Bitartean, jakin, nahi eta behar duzuen erako Danbolineko sukaldean izango naizela.

On egin!

ohiana calparsoro



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEEN ERANTZUKIZUNA

Argibarrabazitea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EDEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRARA EXPOSITO, AMAÑUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabazitea/auzenbazite baldia: NAGORE GELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disainua eta maketazioa: ENEKO ARISTI

Inprimategia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



ESKERRAK BIZIKLETARI!

Burugorra haiz ba gero, Kami! Esan ez nian ba enbidorik ez botatzeko niri! Arraioa daukak, aurtan oso gogotsu nabilek bizikletarekin gure inguruko paraje ederrak ezagutzen. Autoz sekula iritsi ez naizen herrietatik igarotzeko aukera eman dit bizikletak; besteak beste, Ernio magaleko herri txikietako paisaiez gozaten ibili naiz, eta Alkiza bezalako txokoetan izan naiz.

Badira urte batzuk bizikletan ibiltzen hasi nintzetarik; konkretuki, 2013az geroztik nabil bi gurgilen gainean batetik bestera. Ez dakit zoritxarrez edo zorionez, baina ustekabeko istripu baten ondorioz hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Mendiko motorrean nebilela, erorikoa izan nuen, eta lotailu gurutzatua eta meniskoa apurtu zitzaizkidan. Hori dela eta, medikuak esan zidan errehabilitatzeko modurik onena bizikletan ibiltzea zela, eta halaxe hasi nintzen.

Bizikletarik ez neukan, ordea, eta Kamik, Orbea zahar bat erabiltzen ez zuenez, niri utzi zidan nola moldatzen nintzen ikusi ahal izateko. Beraz, esan daiteke nire lehen kilometroak hari esker egin nituela. Berehala ohar-tu nintzen oso gustuko nuela errepidean ibiltzea. Marka da gero! Lehen, autoan nindoanean, txirrindulariak oztopo handia zirela iruditzen zitzaidan, eta kritikatu egiten nituen une oro; orain berriz, ni kritikatzeko ibiliko da norbait akaso.

Mikeli erantzunez, bai, aurtan ere furgoneta hartu eta mendiak igotzera joango gaituk, baina ez Pirinoetara, Kantabriara baizik. Malda gogordun pare bat mendate gordeta zeuzkaat hiretzat, ea nola moldatzen haizen! Kar kar kar! Orain, barraskiloak izango bagina bezala, janaria, arropa eta bizikletak gainean hartu eta goazen denbora libreaz gozatzera!

Eta denbora librea aipatuta, pertsona bat etortzen zait gogora. Aspaldian falta da Elortzareneko urdaitegia, eta hura ikusi orduko herriko irribarrea ateratzen zaigu herritar askori. Txaro Uriaz ari naiz, eta bere denbora libreaz gozaten dabil bete-betean. Badakit hondartza za-

lea zarela eta Benidorm oso gustuko duzula. Udara gainean dugu, eta ba al duzu buruan ezagutzea gustatuko litzaizukeen munduko bazterrik?

hektor larranaga

pintada. zestoako antzerki astea. Eromen elkarteak Zestoako Antzerki Astearen XII. edizioa antolatuko du ekainaren azken astean. Proiektuak duen kulturaren demokratizazioaren filosofiari jarraituz, deskontu bereziak, publiko guztientzako ekintzak eta askotariko gaiak proposatuko dira. Gainera, ikuskizunen ondoren, antzerkigileekin solasaldiak, eta musikaz lagundutako zizka-mizkak izango dira, Laiak arandegia eta Uztapide tabernaren eskutik. Eromen Interpretazio eskolako ikasleek "Sorgin baratza" antzezlaren estreinaldiaz gain, "Gure xaharrak", "Putaren baka-rrizketa eroetxean" eta familia osoarentzako Katagorriaren elezaharra konpainia profesionalen antzezlana izango dira ikusgai ekainaren 24tik 29ra. Gainera, aurtan AEG Berrikuntza Profesionalen Eskolako Neurriko eta Ikuskizunetarako Jantzien Goi Mailako ikasleen kolaborazioa izango dugu Eromen Interpretazio eskolako hainbat ikasleren fantasiako jantziak sortzeko. Gonbitatuta zaude!

eromen elkarte artistikoa

ZESTOARTZEN.

Zestoa herri txiki honek, nola gaur ditun jaiak, festak, danborrada, kuadrilla eguna... Zein ongi eta gustura sentitzen garen talde bateko partaide garenean. Ni, betidanik, pertsona isil eta lotsatia izan naiz, baita kostatu ere Zestoan kuadrilla batean parte izatea. Egia esan, kuadrilla eguneko paella prestatu behar izan nuen alkandora preziatua lortzeko, eta azer euforia lortutakoan. Askotan pentsatu dut zer izango nintzatekeen nire lagun taldea gabe. Izan ere, ez da ederra izango bakarrik egotea edo sentitzea, bakarrik bizitzea edo sentitzea, bakarrik ibiltzea edo sentitzea. Zerbaiten parte izateak jarraitzeko indarra ematen dit, gehiago emateko gogoa, finean, bizitzeko ilusioa. Zer hoberik gure haur, nerabe, gazte eta helduak entzun eta haien ilusioarekin aurrera egitea baino, haien indarrarekin indartsuagoa bilakatuz.

Ia beti, haur edo nerabeen orde pentsatzen hasten gara, gure ustetan haien hobe beharrez. Baina zergatik kendu dagokien ardura? Zergatik ez eman hitza, eta entzuteko prestutasuna izan? Utz diezaiegun beraiek nahi duten parkea imajinatzen, nahi duten jolas lekua osatzen, herria eraikitzen. Gu haurtzaro eta nerabearotik igarotako helduak gara (ustez behintzat), baina ez gara inoiz garai haietara itzuliko. Hala ere, gure haur eta nerabeak, egunen batean, helduak izango dira, eta bizitako guztia elkarbanatu nahiko dute, beraiegan jarritako arretari balioa emanaz. Guk sinetsi dugulako sinetsiko dute haiek ere. Denon hitza behar dugu, denon partaidetza. Horretarako, ordea, sinetsi eta horrek dakarren guztiari aurre egin behar diogu. Nire sukaldeko dohainez zalantzak izan eta hala ere nigan sinetsi zuten haiek bezala. Azkenik, nire lotsa eta isiltasunak alde batera utzita, txapeldunen ligako afari, txokoko partida, txirringako irteera eta abar luze bateko partaide izateraino.

Zestoartzen ari naizela sentitzen dut, nigan sinetsi duzuelako. Aupa zuek!



AZTERKETA, SELEKTIBITATEA...

Egun hauetan batxilerreko ikasleak azterketa garaian izango dira. Batxilerra amaitu eta askok selektibitatea egiteko asmoa izango dute. Hori ere prestatu beharra dute, unibertsitatean beraiek aukeratutako ikasketak egin ahal izateko, gainditu ez ezik, ahalik eta nota hoberena beharko dute ziurrenik.

Hautatutako karreran sartu ahal izateko gutxieneko nota behar izaten da. Nota hori DBH, batxilerra eta selektibitatean lortuta-

ko notaren media eginez ateratzen dutela uste dut.

Hau horrela izatea norbaitek noizbait erabakiko zuen.

Ikasle denentzako plazarik ez dagoe-

nez, zerbait behar da aukeraketa hori egiteko, batzuk sartzeko eta besteak kanpoan uzteko. Baina ez dakit nik sistema hau egokiena den. Ikasleengan sekulako presioa jartzen dute, nota hori lortzeko. Dezimal batzuk gora-behera kanpoan gera daitezke eta ezin izango dituzte aukeratutako ikasketak egin. Aukeraketa bera ere ez denean erraza. Nik uste adin horretan zer ez den gustokoa dela garbi izaten den bakarra, eta ez zer nahi duten. Batzuk oso garbi izaten dute, baina zalantzak dituztenak gehiengo direlakoan nago.

Sartzea lortu ez dutenen aukeraketa bat ikastetxe pribatuan ikastea da. Noski, han eskatzen dutena ez da nota, dirua baizik. Eta ikaslearen familiak dirua badu, aurrera. Eta dirurik ez badago? nota baxuagoa eskatzen duten eta gustatzen ez zaien karrera bat aukeratu, urte horretan ikasketak eten... Hemen ere pribatizazioaren itzala ikusten dut nik. Ze nere ezjakintasunetik ari naiz, baina zergatik ez dituzte plaza gehiago eskaintzen irakaskuntza publikoan? Plazak eskaintzeko eskumena ez dela Eusko Jaurlaritzarena izango esango dute agian, baina hala bada ere, dago-kionari eskatzea ere posible izango da ezta?

Bitartean Osakidetzan medikuak falta direla esaten digute. Zergatik ez dituzte plaza gehiago eskaintzen eta eskatutako gehiegizko nota hori jeisten? Martxa honetan medikuntza arloan gehien beharko ditugun medikuak psikologoak izango dira.



erkuden larrañaga

alex altolaguirre

Izar Unanue

EMAKUME LODIA, EDERRA, BIHURRIA, ALAIA, SENTIBERA, BORROKALARIA, AUSARTA... DUGU IZAR UNANUE IRASTORZA (ZESTOA, 1984), BAINA BATEZ ERE ERRONKA ZALEA. GAUZA BERRIAK PROBATZEN EZ BADITU ASPERTU EGITEN DA; ETA ORAINGOAN ZE OKURRITUKO, ETA MODELO LANETAN HASTEAN. LAGUN MINA DUT ETA ASKOTAN ESATEN DUT: IZAR HANDIA DA, BERE ZENTZU ZABALEAN.

Sare sozialetan hainbat argazki dotore argitaratu dituzu. Makina bat herritarrek galdetu dit: Izar modelo hasi al da?

Ez dut gustuko sare sozialetan nire burua asko erakustea, baina moda mundura hurbildu nintzenean esan zidaten garrantzitsua zela agentziek eta arropa markek ni ezagutzeko nire argazkiak sare sozialetan argitaratzea.

Hori argituta, modelo hasi naizela esatea ez dakit egokiena den: modelo bezala gauzatxo batzuk egin ditut, eta mundu horrekin kontaktua izan dut azken 6 edo 7 hilabeteetan. Kasualitatez, esango nuke nik. Arropa erosten dudana denda batek eskaini zidan desfile batean parte hartzeko aukera, eta baiezkoa esatea kosta egin zitzaidan arren, probatzea erabaki nuen. Erronka berriak gustuko ditut.

Beraz, orain arte zer egin duzu?

Aipatu dizuedan desfile horretan parte hartu ostean, pentsatu nuen lan gehiago sortzen baziren pixka bat formatu beharra neukala mundu horretan mugitu ahal izateko. Orain Madrilerara joaten ari naiz hilean behin formakuntza batera, eta bertan irakasten dizute nola funtzionatzen duen niretzat hain berria den mundu horrek. Momentuz, bi desfiletan parte hartu dut: batean Donostiako Moda Astean eta beste batean Madrilgo Moda Astean. Ez dakit lantxo gehiago aterako diren; aurten 40 urtetxo egiten ditut eta mundu hau gaztetxoagoentzat egina dago.

Eta ze balorazio?

Konfort zonetatik ateratzen gaituen eta haztera eramaten gaituen edozein proiektu positiboa dela esango nuke, zerbait ikasten baita beti. Nire kasuan ba Madrilerara bakarrik joatera behartzen nau, han egun batzuk bakarrik pasatzera, jende berria ezagutu eta haiekin harremantzera,



beldurtzen nauten edota urduri jartzen nauten egoerei aurre egitera, eta nire buruarekin konfiantza gehiago izatera, pauso horiei guztiei esker.

Dena ez da positiboa izango, hala?

Ez, noski, denak dauka alderdi positiboa eta ez hain positiboa. Batzuetan gogorra egiten zait aste guztia erizain bezala lan egin ondoren zuzenean hegazkin bat hartu eta Madrilera joatea, eta han ordu asko lanean pasa ondoren berriz ere igandean itzuli eta astelehenean lanera itzultzea, adibidez. Baina, momentuz, ez naiz modatik bizi eta ez daukat beste erremediorik, kar, kar, kar!

Neurri handietako modelo diogu, baina zer da neurri handia?

Modelo arruntak denok ezagutzen ditugun neurrietakoak dira, oso argalak eta oso altuak. Ondoren Curvy deitzen diren modeloak daude, 40-46 neurri inguruan dabilzanak eta, azkenik, ba neurri handikoak eta plus size deitzen direnak, 46 neurritik gorakoak. Ni azken horretan sartzen naiz. Baina ez dute neurria bakarrik eskatzen, gorputzaren forma, altuera, aurpegia, azala... mota askotako eskakizunak daude, neurri txikietan bezala.

Oro har, gorputz lodi horiek ez dira sartzen gure edertasun kanonean.

Ez. Gaur egun ez behintzat. Gizaldiz gizaldi aldatzen joan den gauza bat dela esango nuke. Garai batean, azala zenbat eta zuriagoa izan orduan eta ederragoa zinen, adibidez. Baina edertasuna hain da subjektiboa. Niretzat pertsona bat ez du eder egiten bere fisikoak, daukan energiak eta ingurukoengan on egiteko daukan gaitasunak baizik. Gainerakoa azalekoa da, eta iraupen jakin batekoa; izan ere, bizi garen bitartean denok goaz zahartzen, eta itxura aldatuz doa. Fase horretan sartzen hasia nago... kar, kar, kar!

Egia da gure gizartean gizentasunari asko gaitzes-ten dela. Baina horretaz ohartzeko gizona egon behar duzu. Autoestimu sendo bat eraiki behar da horrek guztiak min gehiegi ez egiteko. Lanketa bat eskatzen du horrek.

Neurri handien moda munduak ere gure gizartean nahiko inposatua dagoen estetika jakin bat bilatzen du: makillajea, takoiak...

Bai, hala da. Tarteka hasi dira emakume batzuk sare soziale- tan eta makillatu gabe agertzen eta errebindikazio bat egiten inposaketa horien guztien aurrean ere. Nik, adibidez, ez dakit ondo ibiltzen takoeikin, nire egunerokoan ez ditut sekula ibiltzen, eta zaila egiten zait pasarelan haiekin ibiltzea. Hala ere, nik parte hartu dudana desfileetan zapatila eta sandalia plano asko ikusi dut eta gauzak aldatuz doaz. Azken bi desfileak arropa jasangarriarenak ziren, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan pixkanaka industria hartzen hasi den norabidea. Kutsadura handia sortzen duen mundua da modarena, eta gauzak beste era batera egiten hasteko ordua da. Dibertsitaterantz eta jasangarritasunerantz pausoak ematen hasi dira, eta positiboa da hori.

Zuk, ordea, ez duzu betidanik horrelako gorputza izan.

Ez, noski. Hala ere, beti izan dut erraz gizentzeko joera, hori bai. Gogoan dut 13 bat urterekin Elena pediatrik nola esan zidan kontuz ibili behar nuela ogiarekin eta zaindu egin behar nuela. Bizitza guztia nirekin daramadan gaia da. Hainbat nutrizionistarekin ibili naiz, eta batzuetan lortu badut ere pisua jaitea, errekuperatu egiten dut. Hortik pasatu ez denak ez daki zer den hori.

Ez da nire asmoa inondik inora loditasunaren apologia egitea. Ni osasun langilea naiz eta badakit ze arrisku duen lodi egoteak. Eta uste dut bizitza guztian jarraituko dudala osasuntsu-ago egoteko saiakera egiten. Baina lodi dagoenak badaki lodi dagoela. Nik ez dut ezagutzen nahita lodi dagoen inor. Kontsultan ehunka pertsona ikusten ditut, eta sufrimendua dago pisua jaitsi nahi eta ezin horretan. Horrekin esan nahi dudana da pertsonak bere osotasunean errespetatu behar direla; lodi dagoenak badaki horrela dagoela eta ahal duena egiten ari da, kasu gehienetan behintzat, egoera hori aldatzeko. Beraz, ez dugu behar inork kanpotik hori seinalatzerik, kritikatzetik

“PERTSONA BAT EZ DU EDER EGITEN BERE FISIKOAK, DAUKAN ENERGIAK ETA INGURUKOENGAN ON EGITEKO DAUKAN GAITASUNAK BAIZIK”

► eta mespretxu keinurik egiterik. Eta gauza bera ezberdina den guztiarekin. Eskolan, umea zarenean, ezberdina den guztiagatik burla egiteko arriskua duzu, eta loditasuna alderdi bat gehiago besterik ez da.

Autoestimu sendo bat garatzea lortzen baduzu, hainbestean, baina horrela ez bada min handia egin diezaiokegu albokoari; zaindu ditzagun pixka bat gure jarrerak.

Eta, egun, ispilura begiratu eta zer?

Maite dut nire burua. Ez dut pisu bat edota neurri bat ikusten. Pertsona on bat ikusten dut, balio sendoekin eta besteei laguntzeko gogo eta sentimenduekin. Borrokalaria, eta bizitzako erronka askori aurre egitea tokatu zaiona. Nire burua lirainago eta arinago ikusi nahiko nuke, noski, batez ere osasunagatik, baina ispiluari begiratzeko diodanean badakit nor naizen, eta maite dut naizen hori, bere akats eta guzti.

Baina inor sentitzen al da ongi ispiluari begiratzean?

Ispiluan ongi ikusten duzu zure burua, ongi sentitzen zarenean. Ez dut uste neurri kontua denik. Denoi pasatzen zaigu egun batean beste batzuetan baino ederrago ikustea ispiluari begiratzean. Eta zer aldatu da ba asteleheneretik asteartera? Ba gure egoera emozionala ziurrenik. Ispiluan polit ikusteko, polit sentitu behar dugu, gure buruari maitasunez begiratzuz, gure alderdi onak baloratuz, lortutako guztiari garrantzia emanez eta hobetzeko daukagun guztia egun batetik bestera hobetu ezin dugula onartuz.

Lodia eta, gainera, emakumea. Hori zama bikoitza da, ezta?

Bueno, badituzte gizarte honetan hain normaltzat ikusten ez diren zama gehiago. Gizentasunarena ez da handiena. 40 urte ditut, ez daukat bikotekiderik, eta ez daukat haurrik. Oraindik, nahigabe bada ere, badago jendea gutxiago sentiarazten saiatzen dena horregatik. Esan nahi dudana zera da: gehiengoak bezalakoa ez bazara, edota gehiengoak egiten duena egiten ez baduzu, edozein dela ere motiboa, kritikak jasotzeko aukera gehiago duzu. Animoak ezberdinak garen guztiei, asko gara eta! Kar, kar, kar! Ez zaudete bakarrik.

Gimnasioak leporaino daude eta zelulitisa kentzeko kremen iragarkiak nonahi. Badator uda eta urte sasoi honetan argal egoteko presioa oraindik eta handiago izan ohi da. Nola bizi duzu uda?

Gezurra esango nizuke esango banizu ez zaidala kostatzen udaran lehenengo aldiz bikinitan jartzea. Baina ez dut uste hori ere neurri kontua bakarrik denik. Atzo lan-kide batek esan zidan gimnasioan hasi dela pisu ariketak

egiten gorputza indartzeko udara gerturatzen hari delako, eta 36 neurria dauka, eta oso emakume ederra da.

Beraz, azkar eta gazteleraz laburbilduko dut galdera:

¿Que hay que hacer para tener un cuerpo bikini? Pues, ponerse el Bikini! Kar, kar, kar!

Lotsa pixka bat sentitzen dut biluztean eta besteen begiradei aurre egitean, baina inoiz ez naiz joan gabe gertuko horregatik. Hondartza gustuko dut, eta itsasoa eta uretan ibiltzea maite ditut. Ez da inoiz izango ez joateko motibo loditasunarena.

Badaukat erizain bezala paziente bat gurpildun aulkian dagoena jaio zenetik. 30 urte ditu eta, gurpildun aulkian ibiltzeaz gain, lodi dago. Igerilekua oso gustuko du, eta on egiten dio, gainera, baina lotsa ematen dio joatea lodi dagoelako. Larunbat batean berarekin joateko prest aurkeztu natzaio, ni ere lodi nagoela eta elkarren babesean emango dugula pausoa esanez. A ze poza neskarena! Eta zenbat jende horrela. Eta lotsa ez da bere buruari mespretxuz begiratzen diolako, besteen begiraden beldur delako baizik. Eta beldur hori ez da imajinario hutsa, aurretik bizi izan duen zerbait da, eta grabatuta geratzen da. Beraz, kontuz esan eta egiten dugunarekin, ohartu gabe min egin baitezakegu.

Argi dago, mundu hau ez dago lodientzat egina.

Bai, egia esan, jaio ere handia jaio nintzen. Beti izan naiz neska handia. Lirain-lirain nengoenean ere 46 neurria neukan. Lirain, kirol asko egiten eta gorputz normatibo batekin, baina arropa dendetan 44 edo 46 neurria izaten zen handiena. Eta ez guztietan, gainera; eta beti nahiko lan galtzak aurkitzeko. Ez nuen aukera asko izaten galtzak aukeratzeko: sartzen banintzen, erosi eta kito. Ez nuen dudarako aukerarik. Hori aldatuz doa, eta gaur egun arropa polita dago neurri handietan ere.

Lodi izateagatik pairatzen diren beste diskriminazio eta zapalkuntza batzuk?

Baten bat bai egian, baina ez izugarri; nire kasuan, behintzat. Anekdotaren bat beti dago baina... Adibidez, beti egin izan dit grazia parrandan jende askori indarra etortzen zaiola eta neskak bizkarrera igotzeko joera egoten dela maiz. Ez dakit zergatik, baina ni ez ninduten aukeratzen inoiz horretarako. Behin esan nion arte mutil bati: "Aizu, horrek ez dauka batere meriturik, meritua ni altxatzeak dauka". Eta kosta zitzaion, baina egin zuen! Kar, kar, kar! Umoro pixka bat jartzea garrantzitsua da bizitzan.

Seguru medikuarengana joan eta, arrazoia edozein dela ere, pisua jaitsi beharra duzula esaten dizula.

Bai, beti ateratzen da gaia. Bueno, nik uste dut beti hitz egin beharreko gaia dela osasunari buruz hitz egiten dugunean. Osasun arazo bat izan liteke, eta landu beha-

“BADICUT GIZARTE HONETAN HAIN NORMALTZAT IKUSTEN EZ DIREN ZAMA GEHIAGO. GIZENTASUNARENA EZ DA HANDIENA”

rreko gaia da. Baina goxo eta pertsona errespetatuz. Berriz diot: lodi dagoenak badaki lodi dagoela eta ez duela lodi egon nahi. Adibidez, behin kotxe istripu handi samarra izan nuen, gorputza ubelduraz bete nuen eta ezkerreko belauna handi-handi eginda eta minez. Mutuara bideratu ninduten, eta sartu orduko medikuak esan zidan: “¿Y ese sobrepeso?” Ez zizkidan ubeldurak eta belauna begiratu ere egin. Oso gaizki sentiarazi ninduen tratu hark. Zorionez, ez da egunero pasatzen.

Eta zu baino askoz argalagoak diren lagunek “Aixxx... gizendu egin naiz, argaldu beharra daukat” esaten dugunean zer?

Bai... batzuetan harritu egiten nau 2 kilotxo hartzeak nola eragiten dion jendeari. Baina gai naiz ulertzeko pertsona horrentzat nahikoa dela agian gaizki sentitzeko eta bere lekuan jartzen naiz. Gizartean, sare sozialetan eta abar presioa handia dago lirain egoteko eta denei eragiten digu horrek.

Halere, aukera hau aprobetxatuz, esan nahiko nuke, osasun langilea eta terapeuta gisa formatua naizen partetik, osasuna zabala dela. Ongizate fisiko, sozial, mental eta emozionala barne hartzen dituen egoera mugikor eta konplexua da. Ez du ezertarako balio 2 kilo edo 5 galtzeko osasun mentala eta emozionala galtzeak; beraz, ez dezagun argaltasuna osasunarekin lotu eta gizentasuna osasun faltarekin bakarrik. Osasunaren alderdi bat ikusten ari gara, eta ez pertsona osotasunean.

Argal-eder konexioa oso barneratua dugu, baina argitaratu dituzun argazki horietan oso eder ikusten zaitut nik.

Eskerrik asko. Nik ere horrelaxe ikusten dut nire burua. Batez ere ausart ikusten naizelako erronka berriei aurre egiten. Nire argazkiak ikusten ditut, eta, badakidanez atzean zenbat erronka eta lan dagoen, esaten diot nire buruari: bejondeizula Izar! Poztuko nintzateke nire hitzek norbaiti lagunduko baliote bere burua goxoago eta begirune handiagoz ikusten.



amaiur aristi arregi

'SOZIEDADEAK'

HERRIKO BIZITZAREN LEKUKO

AURTEN BETE DIRA 75
URTE GURE TXOKOA
ELKARTEA SORTU
ZENETIK ETA 50
BETEKO DIRA EKAIN,
ESPERANZA ETA LAU
ITURRI ELKARTEAK
SORTU ZIRENETIK.
DATORREN URTEAN,
BERRIZ, ERTXINPEK
BETEKO DU MENDE
ERDIA ETA 3 URTE
BARRU IPINTZAK,
GAZTEENAK. UNE
EGOKIA IRUDITU
ZAIGU ELKARTE
GASTRONOMIKOEK
HERRIKO BIZITZAN
IZAN ZUTEN PAPER
AZTERTZEKO.

Urrun geratzen dira Donostiako hasierako elkarte haiek, esate baterako, Fraternal, ezagutzen den lehena, 1843an sortua, edo bizirik dirauen zaharrena kontsideratzen den Unión Artesana (1870). Gure Txokoa elkarte, gutxienez 80 urte beranduago jaio zen, gerraosteko urte beltz haietan, Zestoa ez ezik inguruko herriak ere benetako basamortu soziokultural bihurtu zirenean.

Gerraren ondoren, ez dago esan beharrik, frankismoak errepresio izugarria ezarri zuen bazter guztietan, eta Errepublika garaian izandako kultur dinamika aberatsa erabat debekatuta eta zapalduta geratu zen. Mugimendu frankistak eta erakunde erlijiosoek iraun zuten bakarrik. Gainerakoek ezin izan zuten burua altxatu puska bat beranduagora arte. Adibidez, musika banda edo txistulari taldea bortizki depuratuak izan ziren eta altxamenduz geroztik deseginda geratu ziren. Seguraraino joaten ziren txistularien bila festetan, eta Azpeitia, Azkoitia, Zumaia eta Elgoibarreraino banda bila. Gerra amaitu eta hamarkada bat itxaron behar izan zen, zehazki 1948. urtera arte, Unión Musical Cestonesa sortzeko.

Pixkanaka, ordea, talde eta ekimen kulturalen sare txiki bat eratzen joan zen, herriko bizitza bizkortzeko. Elkarte horiek udalaren babesia izan zuten gainera; izan ere, Zestoa bezalako herri turistiko batean beharrezkoa zen kultur eskaintza zabala edukitzea eta, gainera, frankismoak normaltasun itxura eman nahi zuen. Hori bai, udal agintariek zorrotz kontrolatuta zituzten elkarte horiek, eta ezereen susmorik bazen ondo informatuta edukitzen zuten gobernadore zibila.



GURE TXOKOA

Frankismoaren zapalkuntza giro horretan, hamarkada bat itxaron eta gero birsortu zen musika banda, eta giro horretan sortzen da Gure Txokoa ere. Agiriek diotenez, elkarteak 1945. urtearen amaieran sortu zen berez baina 1949ko otsailaren 20an eratu zen ofizialki. Xabier Iriondok azaldu digun moduan “dozena bat lagun pasatxo elkartu eta Kerejetaneko lokala hartu zuten [gerora Agustin tabernako jangela]. Jantoki moduko lokala zen eta kanpoan terraza zeukan. Han mahaiak, aulkiak eta edariak bazeuden, baina sukaldarik ez. Bertan dago aterata Gure Txokoaren sortzaileen aurreneko argazkia. (...) Elkarteak sortu zuten bazkideak denak adin bertsukoak ziren, ez oso gazteak [40-50 urte], eta lagunak edo gertukoak”.

Elkarteak sortu eta urte gutxira, lokal berria hartu zuten Elizkalean, mataderia zaharraren ondoan. Lokal berrira pasa zirenean - dio Iriondok - sukaldea zeukaten eta lokal handi eta ederra. Hura erosteko bazkide berri asko sartu zen, jende gazteagoa, eta orduan egin zen bazkide Xabier bera ere (aita eta osaba elkartearen sortzaile izan ziren).

Entretanimendua zen helburu nagusia, han tertulian egotea, jokoan, bazkari-afariak... Jakina, eztabaida politiko edo erlijiosoak oro har debekatuta zeuden.

Hasierako garai gaietan, Gure Txokoaren ekimenik ezagunena santakutz jaia antolatzea zen eta, batez ere, danborrada. 1930ean hasi zuten Anastasio Alkortak eta lagun talde batek baina Gure Txokoa sortu zenean bertan sartu ziren eta ordutik elkarte hori izan zen

antolatzaile. Orain bezala, danborrada aurretik afaria egiten zuten: “Santa Krutz bezperako anaiarteko afari aparta, aurreko urteetan bezala herri honetako andereñoek musu-truk zerbitzatua”; hala dio urte batzuk geroagoko txosten batek. Afarian, bazkideek ez ezik, agintariek ere parte hartzen zuten: alkateak, bikarioak...

Danborradaz aparte, Gure Txokoak, seguruenik hasieratik bertatik, Miserikordiako egoiliarren aldeko zozketa antolatzen zuen eta “Errege bezperan, arropa zuria, jantziak eta oinetakoak” ematen zizkieten.

Xabier Iriondok kontatu digunez, garai hartako elkarteak ez zen gaur egunekoetan bezala bazkari familiarrik eta egiten, ez zen sartzen ez emakumerik, ez haurrik; dena gizasemea. Hara sartzen zen emakume bakarra garbitzailea zen. Emakumeak ez ziren 50eko eta 60ko hamarkadan taberna girora ateratzen bizitza soziala egitera. Iriondok, bere aita eta osabak bezala, elkarteak egin ohi zuen afari-pasara egunero. Gauero dozena bat lagun juntatzen omen ziren aste barruan, eta asteburutan askoz gehiago. Berak eta Manuel Uztapidek, beste bi zumaiarrekin batera, 20 urtean egunero afaldu zuten elkarteak. Sei eta erdiak aldera elkartu eta baratxuri zopa eta zartagineko zerbait jan eta zortziak aldera etxera. Iriondo ez omen da inoiz sukaldean ondo moldatu eta Eugenio Kortxok prestatu zien afaria, egunero, 20 urtean.

Atezain edo *kontserjea* ere ba omen zuten hasiera haietan:

“Luis Zigaran, *Tabloia*, arduratzen zen *kontserje* lanez.

Bazkide guztiek zuten bere giltza, baina Zigaran eliza aurrean bizi zen eta edonori atea ireki behar bazitzaion bera arduratzen zen; bertatik bertara, bazkideen ordainketen jarraipena eta bodega lanak ere berak egiten zituen. Zerbait ordaindu egiten zitzaion”. Iriondok dio edarien ohitura ez zela oraingoa bezalakoa: “Garai haietan ardo beltza, urtekoa, eta Soberano pattarra edaten ziren gehien, zerbezarik eta ez”. Gogoan du nola joaten ziren hilero Donostiako 31 de agosto kalera ardo bila. Kaxa mordoa ekartzen omen zuten “baina hilero joan egin behar, edan egiten zen-eta”. Jende asko ibiltzen omen zen orduan elkarteak. Aitzakia ederra zela, dio, parte zaharrera buelta bat egiteko eta gustura joaten zirela.



1960-70 HAMARKADAK: URREZKO GARAIAK.

1950eko hamarkada hasieran zinema eta parrokiako Zentroa sortzen dira. Orduko giro txepela aipatzen da egunkarietan: “Zentroa existitzen ez zenean, duela zenbait urte, [seguruenik gerra aurreko garaia gogoan] Zestoak futbol talde bat bazuen bere apaltasunean, torneoetan parte hartzen zuten esku-pilotako bikoteak, mendizaleak, bizikleta lasterketa handiak antolatzen ziren, krosak, ospakizunak... eta gaur egun, ordea, gazteriari dena ematen zaio eskura eta ezer ez!”. Ikusten denez, artean gerra ondorengo zapuztetik altxatu ezinik.

1960ko hamarkadak, ordea, aldaketak ekarriko ditu gizartearen. Herriko elkarte sarea indartzen joango da pixkanaka: 1953 inguruan hasitako Elizondo zinemaren egitarauari Zine Forum taldea gehituko zaio (1962), Zentroak garrantzi handia hartuko du festen antolakuntzan eta liburutegia ere eratuko dute bertan. San Jose ikastetxeko guraso elkarte oso talde dinamikoa bilakatuko da Salletarrekin. Musika arloan, bandaz gain mugimendu berriak sumatzen dira, euskal jaialdiak antolatzen hasten dira. Kirolean zer esanik ez... Ez da ahaztu behar, akenik, 1966-67 ikasturtean ikastola martxa jarri zela, dozena bat ikasle ingururekin, Zentroan.

Testuinguru horretan, Gure Txokoa elkartearen protagonismoa handia izan zen eta haren babespean joan ziren indarra hartzen Elizaren eremuan mugitzen ez ziren gainontzeko ekimenak. Danborrada antolatzen jarraitu zuen eta 1960an umeena sortu zuten. *Santakutz* jaien antolakuntzan, Juventud Cestonesa taldea ere, alegia Zentroa, aritzen zen eta urtero ematen zion dirulaguntza udalak.

1960ko hamarkadatik aurrera, pilotako eta txirrindularitza federazioetako kide zen Gure Txokoa. Hori zela eta, herriko kirol jardueren antolaketa bere gain hartzen zuen elkarteko kide jakin batzuk arduradun gisa jarrita. Pilotan, Herri Mailako Txapelketa antolatu ohi zuen, baita herri artekoetan parte hartu ere. Manolo Sagarazaren ardurapean egiten ziren jarduera haiek: “Elkartea Gipuzkoako Pilota Federazioan inskribatuta dago, eta etorkizuneko 30 pilotari gazte ditu federazioan izena emanda”, zioen 1976ko txostenak.

Txirrindularitzari dagokionez, 1960ko hamarkada erdi aldetik aurrera hainbat aldiz antolatu zituen lasterketak. Hasierako urte haietan (1966, 1967...) Gipuzkoa Sarirako puntuagarria zen lehen eta bigarren mailako afizionatuen lasterketa antolatu ohi zen. Beste kirol ekitaldi batzuetan ere parte hartzen zuen Gure Txokoak, zeharka bazen ere: esate baterako, batez ere 70ko hamarkadan, herrian antolatzen ziren plater-tiroko txapelketako garaikurra jartzen zuen. Zenbait urtetan, Marmitako txapelketa ere antolatu zuen udalak, eta han ere Gure Txokoako bazkideak izan ziren lehenak.

Ez da ahaztu behar, bestalde, hainbat urtetan - hemen ere Zentroarekin elkarlanean - antolatu zuten Euskal Jaia. Egun hori abuztuan antolatzen zen, kanpotarrei hemengo kulturaren berri emateko. Dianarekin eta Zestoa, Azpeitia, Zarautz eta inguruetako txistularien alardearekin hasten zuten eguna. Gero, meza ondoren, dantzariak. Hurrengo, berriz, harri-jasotzaileak, dantza taldeak, bertsolariak eta iluntzean erromeria (1967ko txostena).

‘SOZIEDADEAK’ BURUAN ILEA BEZALA

1973 eta 1980 artean benetako hazkundera gertatu zen. 175 soziedade berri sortu ziren Gipuzkoa osoan, hau da, urtean 22 batez beste. Zestoa honakoak eratu ziren: Ekain (1974-02-18),



Esperanza (1974-09-25), Lau Iturri (1974-09-25), Ertxinpe (1975-10-12) eta, azkenik, Ipintza (1977-07-04). Hazkunde horren arrazoia zein zen ez da erraza jakitea. Garai hartako elkarte gastronomikoen ordea, jada ez zuten betetzen Gure Txokoak 1960-70ean zuen papera. 1970eko hamarkadan, elkarte berri ugari sortu ziren herrian eta soziedadek beren barruko dinamikara mugatu ziren, hau da, jan-edana, bazkideen arteko solasa...). Danborradarekin jarraitu zuten hala ere.

EKAIN, ESPERANZA, LAU ITURRI

Ekain da seguruenik pedigree handienekoa, eta zerbaitegatik deitzen zaio broma gisa "aberatsen soziedadea". Mari Jose Etxeberriak kontatu digun bezala, "etxe hori lehen Elozegi medikuarena zen eta nik uste aukera ikusi zutela erosteko eta bertan elkarte berri bat egiteko, zeren nire aita behintzat lehenago Gure Txokoako bazkide zen". Ez ziren jende asko: "Oso gutxi ziren, igual 13 bat". Orduko elkarteek berezkoa zuten danborradan parte hartzea eta "Ekainekoek ere bazeukaten beren bandera, baina nola gutxi ziren Gure Txokoako elkartearekin, alegia haiekin bat eginda, jotzen zuten".

Ekain eratu eta hilabete batzuetara Esperanza elkarte sortu zen. Benigno Fernandez eta Guillermo Buenoren arabera, "duela 50 urte mundu guztia zen elkarteren bateko bazkide eta horregatik sortu zuten Sociedad Esperanza". Ondo gogoratzen dute elkarte sortu aurreko testuingurua: "Arancha Mari taberna izan zen eraikinean sortu zen Esperanza. Juan Luis Gomez *El gallego* zen arduraduna". Itxura denez, eraikin handia zen eta hondoan eszenatoki modukoa zuen. Bainuetxea indartsu zegoenean, kafetegi gisa funtzionatu zuen eta jende asko elkartzen zen kanpoko terrazan. "Gerora, Claro Trenado izeneko batek jarraitu zuen tabernarekin beste urte batzuetan" [1972tik aurrera].

Taberna itxi zenean, elkarte bezala irekitzea pentsatu zuen lagun talde batek, Trenado bera ere bazkide zela. Extremadurako hainbat herritar elkartuta (tartean asturiar bat edo beste eta zestoarren bat ere bazen) denera 25 bat bazkide izan ziren sortzaileak. Garai onenean 40 bazkide izatera iritsi baziren ere, lehengo eraikina bota, etxe berriak egin, eta elkarte berria sortu zenetik

(1990eko hamarkada amaiera), bazkideek berriro dirua jarri behar izan zuten eta orduan dozena bat baino gutxiago geratu ziren. Extremaduran izandako bazkideren batek handik ekarritakoak prestatu eta lagun artean kontu-kontari jarduteko lekua izan da Esperanza. Covid-ak, esate baterako, Ipintza elkartearen bazkal ondoreneko mus txapelketak eten bazituen ere, Esperanza jai egun guztietan egiten dute pasara. Danborradako talde gisa inoiz ez dira atera baina herriko beste talde batzuetan parte hartu izan dute. Hara zer dioen Gure Txoko elkartearen 1975eko txostenak: "Gure danborrada tradizionala aurten aurrekoak baino handiagoa izan da, lehen aldiz Lau Iturri eta Esperanza elkarteak gehitu baitzaizkio".

Lau Iturri Esperanzarekin batera 1974ko irailaren 25ean inskribatu zen Gobernu Zibilean, baina baliteke hilabete batzuk lehenagotik martxan egotea. Jose Manuel Errastik berak 18 bat urte zituenean sortu zutela uste du, beraz, 1970eko hamarkada hasieran. "Alokatu egin genuen lokala. 12 edo 13 sortzaile izango ginen. Lokal hartan lehenagotik mostradore moduko bat eta mahai batzuk zeuden bodega gisara; Sorazunetik eta hara joaten ziren tragoak hartzera. Gexalatarrena zen eta ardo partitzen eta ibiltzen ziren, eta bodega ere beraiek atenditzen zuten".

"Eta laga zutenean, hura guk dena garbitu genuen, paretak pintatu, frisoa jarri - uste dut berde argia zela - hezetasun bat zegoen...! Batek elektrizitate pixka bat zekien beste batek igeltsero eta denon artean bakoitzak egin zuen ahal zuena". Kontu horiek 1974. urtekoak izango dira, orduan eskatu baizen udalean baimena "Lau Iturri elkarte irekitzeko", eta Uztapide plazako obrak ez baitziren 1977ra arte hasiko. Sukaldea eta parrilla bazituen lehenengo biltoki hark. "Han urte batzuk eta gero beste lokal bat hartzea pentsatu genuen. Horretarako bazkide berriak apuntatzen joan ziren".

Besteak baino aurrerakoiagoa izango zen, itxura guztien arabera, eta elkarte sortu eta gutxira izan zuten emakumeek hango bazkide izateko eskubidea: "Uste dut lehenengo soziedadea izan zela -[ez du gogoan Gipuzkoan edo Euskadin] emakumeak onartu zituen. Nire andrea [Axun Elorza] izan zen horietako bat beste batzuekin batera". Orduan ez zegoen biltzeko lokal askorik Zestoan eta hori izan liteke, Errastiren ustez, hainbeste elkarte sortzearen arrazoia: "Zentroa bazegoen baina hura denena zen. Eta gainera Eliza zegoen, eta asko agintzen zuen...". Beraz, askoz atseginagoa zen lagun talde bakoitzak bere lokala edukitzea. Herriko kultur ekintzetan murgiltzea baino ohikoagoa zen lagun arteko giroan otorduak eta solasaldiak egitea. Hala ere, danborradan inplikatzeko ziren, eta nola! "Gehiena mugitzen zen Migel Larrañaga, *Baltxola*. Behin joan ginen inauterietara Tolosara eta han karrozak ikusi genituen; orduan okurritu zitzaion Baltxolari karroza bat nola egin eta horrelako kontuak; eta joan ginen karroza gustatu zitzaigun soziedade hartara, hitz egin genuen hango jendearekin eta hango karroza ekarri genuen danborradara Santakutzetara [umeen egunerako]".

jone bergara
fernando arzallus

DANBOLIN AZOKA

2024.06.22

EKAINAREN 22AN ZURE ZAIN EGONGO GARA!

SANTU GUZTIEN EGUNAK ZER DAKARKIZU GOGORA? DANBOLINEKO KIDE ASKORI WEBGUNEA ERORI ZITZAIGUN EGUNA. IAZ IZAN ZEN, JAI EGUN TONTO HORIETAKOA BEHAR ZUENA BURUHAUSTE BIHURTU ZITZAIGUN; WEBGUNEAK *KAPUT!*

Ohiana, webguneko arduraduna, Danbolinen hasi berria zen, eta bera eta anaiak, saiakera eta ordu mordo eta gero, webgunea altxatzea lortu zuten. Horrela esaten da mundu honetan, erori, altxa... eta horrekin batera geuk ere burua nolabait altxa genuen egunaren amaierarako. Baina danbolin.eus ataria justu-justu daukagu zintzilik eta ez dago beste aukerarik, berria egin behar dugu! Aldizkaria maitea dugu, baina webguneak eguneroko informazioa azkar zabaltzeko aukera paregabea ematen digu, eta derrigorrezko hanka bihurtu da Danbolin proiektuan.

AUZOEN PRESENTZIA INDARTUKO DUEN WEBGUNE BERRIA

Webgune berria egiterako orduan, koloreak eta diseinua eguneratuko ditugu, noski. Atari praktiko eta bisualagoa egiten saiatuko gara. Bada, ordea, guretzat bereziki garrantzitsua den gauza bat: auzoen presentzia indartzea. Askok jakingo duzuen moduan, eskualdeko proiektuan momentuz, behintzat, ez sartzeko erabakia hartu genuen duela urte batzuk, handien artean txikiarekin gertatuko zenak kezkatuta, besteak beste. Arrazoi horri tiraka, gurean txiki sentitzen zirenekin, auzoekin alegia, zerbait estrategikoa egiteko erabaki irmoa hartu genuen. Bide horretan auzo-erredakzioak sortu ziren. Arroabeen, Arroagoian, Aizarnan eta Iraetako taldeetan 25 lagunetik gora ditugu bateko eta besteko berri ematen, zuzenean gauzak iragartzen, proposatzen... (bide batez esan, talde hauek irekiak direla eta norbaitek sartu nahiko balu... jakinarazi!).

Orain beste pausu bat eman nahi dugu eta auzo bakoitzak bere txokoa izango du webgune berrian.

DIRUA BILTZEKO AZOKA

Danbolin irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta ez ditugu webgune berria egiteko behar diren 5.000 euroak eskura. Horregatik, bigarren eskuko azoka berezi bat antolatzea erabaki dugu. Hori bai, aurrez garbi esan nahi dugu helburua dirua biltzea dela.

Zubimusuko Udaleko brigadako lokalean egingo dugu materialen bilketa. Dirua lortzeko moduko gauzak nahi ditugu, "hau Danbolini emango diot ea honekin diru pixka bat lortzen duten" esateko modukoak; altzari txikiak, dekorazio objektuak, kirola egitekoak, arropa eta osagaiak...

EZ DA FALTAKO JAI GIRORIK

Ekainaren 22an izango da egun osoko azoka, eta tartean musika eta koktel dastaketa ere antolatu ditugu. Koktel dastaketarako plastikozko edalontziak erabili nahi ez eta kristalezko edalontziak eskatzeko Whatsapp mezua zabaldu genuen eta berehala inguratu ditugu 50 kopa. Ederra da herriaren erantzuna ikustea. Beti dago norbait laguntzeko gogoz eta oraingoan ere argi dugu lortuko dugula webgune berria egiteko behar dugun guztia.

Segi hor!



JASOKETA

ZUBIMUSUKO UDAL BRIGADAKO GARAJEAN

Maiatzak 31, ostirala (17:00-19:30)

Ekainak 1, larunbata (10:00-13:00)

Ekainak 7, ostirala (17:00-19:30)

Ekainak 8, larunbata (10:00-13:00)

AUZOETAN

Arroabeen: maiatzak 29, asteazkena (18:00-18:30)

Aizarnan: maiatzak 30, osteguna (18:00-18:30)

Arroagoian: maiatzak 30, osteguna (19:00-19:30)

Iraetan: maiatzak 30, osteguna (19:30-20:00)



AMILLUBI

LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m2 lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurra izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera: www.amillubi.eus

24/25 ikasturteko aurrematrikula

æk
euskara praktikoa

Egin
aurrematrikula



EKAINA							1	2
3	4	5	6	7	8	9		
10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30		

EUSKARA-IKASTAROAK

ABANTAILAK:

- Ikasturte honetako **prezioari eutsi**.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehentasuna taldeak eratzeko orduan.

Ekainaren **28ra** arte,

www.aek.eus

webgunean edo AEKren
edozein euskaltegitan.

zestoa@æk.eus · 670 420 048 · www.aek.eus

KIMUBAT
— GARDEN

Mantenua & Ureztaketa



**Prestatu ezazu zure
lorategia uda garairako!**

UREZTATZEKO MANGERAK

PIEZAK

LORATEGIRAKO ERRAMINTAK

BELARRA MOZTEKO MAKINAK

BASERRIRAKO MATERIALA...

Urrestilla bidea z/g · Azpeitia · 943 15 00 85 · kimubat@kimubat.eus · www.kimubat.eus



Taxi Zestoa



9 Eserleku

Eneko 603 394 729

Joseba 670 431 90

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 | Portale kalea 1, BeheB - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicinical@gmail.com
ZURNE ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOA ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 848

Tel.: 943 14 78 28



**Fisioterapia
Osteopatia**

— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

danbolin.eus



KIROLDEGIKO FRONTIAREN INAUGURAZIOA

Kiroldegiko frontoiaren inaugurazioaren baitan hainbat ekintza antolatu dira maiatzean zehar. Aurrena, "Euskal pilota garai berrietara egokitzen" mahai-ingurua izan zen, kultur etxean, Iera Agirre, Jon Alberdi eta Oinatz Bengoetxea pilotariek. Kepa Iribarrek egin zituen moderatzaile lanak.

Maiatzaren 25ean, larunbatean, Emakumezkoen Udaberriko Txapelketako Bertso Pilota saioa izan zen, eta Abantzu Pilota Klubak Arroako Naroa Agirre pilotariari omenaldi xume bezain polita egiteko baliatu zuen.

Igandeko pilota partidan aldaketak izan ziren Zabalaren lesioa tarteko, eta Eskuz banakoaren ordeztu, binakakoa jokatu zen. Lehenengo partidan, Elordi eta Bikuña, Jaka eta Eskirozen aurka eta bigarrenean, Artola eta Imaz, P. Etxeberria eta Zabaletaren aurka.



MAIATZEAN ZEHAR JAIK IZAN DIRA AUZO ASKOTAN. Aurrena Ibañarrietan ospatu zituzten santakutzak. Ondoren Endoiak hartu zuen erreleboa, Asentzio jaiekin. Maiatzaren 18an, Aizarnan Pazko festa izan zuten, eta Arroabeen, berriz, San Isidro jaiek ospatu zituzten.



ZESTOAKO MUGIKORTASUNA HOBETZEKO, HERRIKO GI-631 ZEHARBIDEA HOBETUKO DUTE UDALAK ETA ALDUNDIAK ELKARLANEAN

Herrigunea zeharkatzen duen errepidea egokitzeko Udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmena onartu du foru gobernuak. Lan hauen helburua trafikoa baretu, herriaren sarbideak berrantolatu eta errepidearen segurtasuna hobetzea dira. Herrigunean hainbat kaleren arteko lotuneak hobetuko dira eta kasu batzuetan norabideak ere aldatuko dira.


Lanek 1.620.000 euroko aurrekontua eta zortzi hilabeteko exekuzio epea izango dute. Udalak proiektua lizitatu ondoren, lanekin udazkenean hasita aurreikusten da, eta datorren udaberriko amaite ahal izatea.

OHITURA



Badut ohitura. Niri pasatzen didatena erabiltzen dut eta batez ere neuk erabiltzen ez duta besteei pasatzeko ohitura badut, arropa normalean.

Jon Etxeberria
42 urte



Bai, noski. Nik erabiltzen ez ditudan arropak, inguruko-
ei edo kalean dau-
den arropa ontzie-
tan uzten ditut.
Materiala, berriz,
Zarautzen Arraun
klubak duen biga-
rrengo eskuko lo-
kalean bertan utzi
izan dut. Orain gai-
nera, ama izatear
naizenez, famili,
lagun eta ezagunek
eman eta utzitako
materiala eta arro-
pa jasotzen nabil.

leire martija
34 urte



Bai, behar ez ditudan edo erabiltzen ez ditudan ematen ditut eta besteek niri emandakoak ere gustora erabiltzen ditut, batez ere umeen jostailu eta arropak.


olatz barandiaran
41 urte



Bai, besteen gauzak erabiltzen ditut, eta eman ere bai. Arropa onak jaso izan ditut eta nik bizikletak eman nituen, eta tabernan ere berrerabiltzeko beirazko botilak adibidez.

Iñigo trufero
48 urte

ERABILTZEN EZ
DITUZUN GAUZAK
BESTE NORBAITI
EMAN, ETA BESTE
NORBAITENAK
ERABILTZEKO
OHITURARIK BA AL
DUZU?



(Erantzuleak guztira: 73)



■ Bai
■ Ez
■ Ez dakit



ale

Iraetako baratze parke inguruan belarra oso luzea dago eta ia ezin da konposta lekura iritsi.



ale

Zubimusuko petrila oso egoera txarrean zegoen eta berritu egin dute.

ale

ale



ARROABO

Ekaina

01 Larunbata

BTT eguna eskola kirolaren baitan.* 17:30 "Gai ziren eta gai gara" bertso saioa, kiroldegia. 1967ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko gaietatik abiatuta abestuko dute Maialen Lujanbio, Saioa Alkaiza, Alaia Martin, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta Aroa

Arrizubietak. Gai jartzaileak: Amaia Agirre eta Xalbat Alzugarai. Sarrerak Turismo Bulegoan eta leihatilan, 10 euro.

07-09 asteburua

Arroila jaitiera egitera irteera Agiok antolatuta. Izena ekainaren 2rako eman behar da. Harremanetarako: Aratz (665 715 248).

07 OSTIRALA

17:00-19:00 Zirku tailerra Arroabeen Sakulupe Guraso Elkartek antolatuta. Hiru urtetik gorako Arroabeko haur eta gaztetxoentzat. 3-6 urte bitartekoek guraso baten laguntza beharko dute. Ez dago izena eman beharrik. *19:30 Andoni Ollokiegiren kontzertua, Portalen. * 20:00 Itxaropena dantza taldearen emanaldia, kiroldegian.

08 Larunbata

Ekain mendira krono igoera.

09 IGANDEA

18:00 "Negu hurbilak" filmaren emanaldia eta ondoren, Mikel Ibarguren eta Ekain Alvite egileekin solasaldia, Portalek antolatuta, kultur etxean.

11 asteartea

18:30 Ertxiña musika eskolaren ikasturte amaierako emanaldia.

14 OSTIRALA

Arroa irratiko azken saioa. *Odol emaileen eguna. *Erremonte jaialdia kiroldegia.

15 Larunbata

Urepele eguna 2024. 8:00 Zestoako XXII Ibilaldi Neurtua, Agiok antolatuta. 15 km plazatik abiatuta. Izena eman behar da Herrirosa. eus atarian, ekainaren 14a baino lehen (egunean bertan ezingo da izena eman). Parte hartzaile bakoitzak kamiseta jasoko du. Prezioa 15 euro (segurua barne). 11:00 urepeldarren etorrera. Eguerdira bitartean Urepele eta Zestoako ekoizle eta artisauen azoka. 12:00 Klika txaranga. 14:30 Herri bazkaria plazan bertsolariekin. Bazkal ondoren, kantaldia plazan. 18:00 urepeldarren itzulera.

20 OSTEGUNA

18:30 Ixabel

Agirresaroberekin helduentzako ipuin kontaketa: "Kontua eta zikina", Alonderon, AEK antolatuta.

21 OSTIRALA

Zestoa Talent Show

Ekain Guraso Elkartek antolatuta, udaletxe azpian. Bakarka edo taldean har daiteke parte. Izen-ematea eskolako tabloian, maiatzaren 31 bitartean. *Sakulupe Arroabeko guraso elkartearen ikasturte amaierako festa. 15:00-19:00 Puzgarriak. 17:00 Txokolatada. 18:00-19:00 Apar festa.

22 Larunbata

DANBOLIN

AZOKA ETA KOKTEL

DASTAKETA. Webgune

berria egiteko dirua biltzeko.

Jasoketa Zubimusuko brigadaren lokalean: maiatzaren 31n arratsalde, ekainaren 1ean, goizez, 7an arratsalde eta 8an, goizez. Maiatzaren 29an Arroabeen egingo da jasoketa, eta 30ean Aizarna, Arroagoia eta Iraetan.

23 IGANDEA

17:00-18:30 Ur-

puzgarriak Iraetan *San Joan sua, Zestoako plazan.

28 OSTIRALA

22:30 Zine Banden

kontzertua, Hans Zimmer, Euskal Herria plazan.

29 Larunbata

Labaien-Belaeta egun pasa, Agiok deituta. * 18:30 kantaldia Iraetako pilotalekuan, "Jon, Jaione eta seme alabak zuri kantari".

ZAIA! 24 EGITARUA

-24, 25 ETA 26. 21:30. LILI JAUREGIA. EROMEN PRODUKZIOAK.

SORGIN BARATZA. Mundua bitan zatiturik dago; alde batetik botere militar eta politikoa, eta bestetik, artistikoa eta humanista. Liskar amaigabe batean bizi dira bi talde hauek.

Baina egun batean, bien arteko gatazka aldatu dezakeen zerbait gertatzen da. Zer gertatuko litzateke liburu batek munduko sekretu eta gertakizun guztiak gorde eta aurreikusteko ahalmena izango balu?

-27. 20:30. CARAVAN PARK. BONBON BELTZ antzerki taldea. GURE XAHARRAK.

Urtxintx Urdinak zaharren egoitzan, etekin ekonomikoa helburutzat hartuta dago antolatuta lana, eta talka egiten du. Egundauetan bereziki, elektrikoa da giroa. Lantaldean ondoeza eta sentsibiltatea areagotzen dira, eta lehertzeko zorian dago osasun arduraduna.

-28. 20:30. CARAVAN PARK. Garaion Sorgingunea eta MANVCODIATA. PUTAREN

BAKARRIZKETAK. Emakume bat eroetxe bateko gela batean dago bakarrik, aulki batean eserita eta kamaraz inguratuta, ikusten ez dugun doktore batekin hizketan. Emakumea prostituta da, eta elkarrizketan bere istorioa azalduko du.

-29. 12:00-14:00. TAILERRA. Nola sortu istorio txikiak. Adina: Gazteak eta helduak. Ordua: 12:00-14:00. La Baldufaren sormen metodoaren bidez, kontakizun txikiak imajinatzen, sortzen eta birsortzen jolastuko gara.

-29. 19:30. CARAVAN PARK. Companyia de Comediants La Baldufa. KATAGORRIAREN ELEZAHARRA. Triku handia lasai bizi da, haritz handi baten itzalpean, eta bereak zaintzen ditu, bere mundu-zatitxoaz gozatzen duen bitartean. Egundau batean, ordea, bake hori aztoratu egingo da urtxintxa atsegin, bihurri eta jostalari baten etorrerarekin.

SARRERAK ekainaren 4tik aurrera egongo dira turismo bulegoan eta www.entradium.com webgunean salgai.

MGS
Mutua General de Seguros

JAVIER ALBERDI
Aseguru agente eskusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

640 917 626



DANBOLIN
AZOKA
2024.06.22



ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015

Pakete Okina
943 148 428

unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tf: 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA